# 2005ko Zezenketak

### 2005-08-16KO ZEZENKETA
### CUBATONTO ZEZENKO IKUSGARRIA

Debako zezen plaza berezia bete egin zen, ekitaldiak merezi zuen alturan. San Roke Eguna eta eguraldi ona, egun eguzkitsua. Preferentziarako ate berria asko gustatu zitzaien eserleku horiek erabiltzen dituzten ohiko zaletuei. Benetan asmatu zuten.

Debako zezenketetan tradiziozkoa denez, Tamamesko (Salamanca) Lorenzo Fraile Martinen Puerto de San Lorenzo abeltzaintzako zezenkoak toreatu ziren. Carafeo (138), Perruno (104), Tanguista (124) eta Cubatonto (102); hurrenkera horretan plazaratu ziren. Carafeok nahiz eta izen hori izan, oso aurkezpen ona izan zuen baina atzeko laurdenean lesioren bat izan zuen eta oso mantso jokatu zuen, ahul; Perruno eta Tanguista mantsoak baina kasta handikoak izan ziren eta pase asko egin zituzten. Zezenhizkeran esaten den bezala "se dejó". Cubatontok aparteko azalpena merezi du. Zezenko ona izan zen, suharra eta noblea. Asko apaldu zuen burua eta pase luzeak, oso luzeak, egin zituen bi adarrekin. Merezi bezala, plazari buelta eman zion.

**"El Santo"**-k hondorainoko ziztakoa (plazari buelta) eta ezpata kolpe eroria (2 belarri). **Raul Palancar**rek, beherakada (tertziotik agurra) eta ezpata kolpe ona (belarria).

Andoni Iriondo "Zestero" (Gure Kai dantza taldeko lehendakaria) izan zen zezenketako lehendakaria, Paco Salegiren aholkularitzapean. Agintarien balkoian Joseba Azkarraga sailburua egon zen eta "El Santo"-k zezenko bat eskaini zion.

Ohikoa denez, Debako Musika Bandak ere lan ona egin zuen Fernando Urainen zuzendaritzapean eta egun horretan lan asko eduki zuten, bi toreatzaile-gaiek beraien zezenkoak banderillatu ere egin zituztelako.

**"El Santo"** frantzesak Manuel Larios badajoztarra ordezkatu zuen, azken honek behar bezala akreditatu baitzuen (mediku-ziurtagiriarekin) gastroenteritis akutua zuela. Oso prestua izan zen, kapotearekin ondo toreatu zuen bai bere zezenkoekin eta bai beste toreatzailearen zezenkoei kiteak egin zizkienean. Gogor jardun zuen eta batez ere oso lan ona egin zuen banderillekin. Baliteke eskuzabaltasunez jokatzea bigarren belarria emateraoan, baina bere emanaldia oso duina izan zen.

**Raul Palancar** madrildarra geldo samarra eta oso suhurra izan zen. Bigarren zezenkoari ez zion atera behar bezalako etekinik kontuan izanda edozein toreatzailek arratsaldero ateratzea nahi izaten duen horietako zezenkoa zela. Borondatea erakutsi zuen eta zezen plazako giroari ere lagundu zion laugarren zezenkoari eman zion ezpata kolpe handiarekin, bestalde, hori baitzen zezenkoak merezi zuena ere.

Ez ziren falta izan ez lorak, ez oiloa ez Victor Zubicarayk, Jesus Mª Azkoitiak eta Pedro Iriondo "Aldatz"-ek arratsaldero eramaten duten untxia. Dudarik gabe, horiek gure zezen plazari izaera berezia ematen diote eta hala jarrai dezatela urte askotan.

# Novilladas 2005

### *NOVILLADA DEL 16-08-2005*
### *CUBATONTO UN EXCELENTE NOVILLO*

*El singular coso de la plaza de toros de Deba se llenó a rebosar estando a la altura que la ocasión merecía. Día de San Roke y buen tiempo, luciendo un espléndido sol. La nueva puerta de acceso a las gradas de preferencia fue elogiada por los aficionados y aficionadas que habitualmente ocupan esos asientos. Fue un gran acierto.*

*Como es tradicional en la feria taurina de Deba, se lidiaron toros de la ganadería de Puerto de San Lorenzo de D. Lorenzo Fraile Martín, de Tamames (Salamanca). Carafeo (138), Perruno (104), Tanguista (124) y Cubatonto (102), saltaron a la arena por ese orden. Carafeo que no hacía honor a su nombre porque fue un novillo excelentemente presentado, acuso alguna lesión en sus cuartos traseros, siendo muy manso y flojeando en exceso; Perruno y Tanguista fueron mansos pero con mucha raza y muchos pases. Como se dice en la jerga taurina toda la novillada "se dejó". Cubatonto merece un comentario especial. Fue un gran novillo, bravo y noble que humilló mucho y que fue largo, muy largo, por los dos pitones. Se le dio una muy merecida vuelta al ruedo.*

***"El Santo"** pinchazo hondo (vuelta al ruedo) y estocada caída (2 orejas). **Raul Palancar**, bajonazo (saludos desde el tercio) y gran estocada (oreja).*

*Presidió la novillada Andonio Iriondo "Zestero", presidente del grupo de danzas Gure Kai, que estuvo asesorado por Paco Salegi. El Consejero Joseba Azkarraga al que "El Santo" le brindó un novillo estuvo presente en el palco de autoridades.*

*Como también es tradicional, muy buena actuación de la Banda de Música dirigida por Fernando Urain que tuvo trabajo acumulado al banderillear los dos aspirantes a matadores de toros sus respectivos novillos.*

*El francés **"El Santo"** estuvo en el cartel por la baja del pacense Manuel Larios afectado por una gastroenteritis aguda debidamente acreditada por el correspondiente certificado médico. Estuvo muy dispuesto, toreó bien con el capote tanto en su lote como cuando hizo los quites en el de su compañero de lidia, estuvo muy entregado y, sobre todo, excelente en las banderillas. Quizás hubo exceso de generosidad en la segunda oreja, pero su actuación fue muy digna.*

***Raul Palancar**, novillero madrileño, estuvo soso y muy precavido. Pudo y debió sacar más partido de su segundo novillo que era de esos que los novilleros quieren que les salga cada tarde. Estuvo voluntarioso y colaboró al ambiente existente en la plaza dando al cuarto novillo una gran estocada que, por otra parte, es lo que merecía el morlaco.*

*No faltaron los ramos de flores, ni la gallina, ni el conejo que Víctor Zubicaray, Jesús Mª Azkoitia y Pedro Iriondo "Aldatz" llevan cada tarde. Su presencia da una impronta especial y un carácter propio a nuestra plaza. Que sea por muchos años.*

### *NOVILLADA DEL 18-08-2005*
### *LORENZO FRAILE ENVIÓ UNA GRAN NOVILLADA*

*Tres cuartos largos de entrada. Presidió la novillada José Mª Ulazia "El torero" y amenizaron la tarde en el apartado musical la banda de música y los incansables gaiteros de Estella. Asistió*

## 2005-08-18KO ZEZENKETA
## LORENZO FRAILEK ZEZENKETA HANDIA BIDALI ZUEN

Sarrera hiru laurden baino gehiagokoa. Jose Mª Ulazia "El torero" izan zen lehendakaria eta Debako Bandak eta Estellako Gaitero nekaezinek jo zuten musika. Agintarien balkoian Lorenzo Fraile Martin egon zen bere emazte eta alaba batekin.

San Rokeetako bigarren zezenketara joan ziren zaletuentzat desengainu handia izan zen laugarren zezenkoa. Eta ez zen gutxiagorako. Cubitok (72. zk.) atzeko laurdenean lesioa izan zuen eta baliogabetuta geratu zen zezenketarako. Zezenko ederra zen, bere anaiak bezala, aurkezpen onekoa. Yegüizo ere itxura ederrekoa eta 118 zenbakiarekin, plazaratu zen lehena izan zen. Zezenkorik onena izan zen, suharra, noblea, tinkoa eta asko apaldu zuen burua. Caruchero ere (16 zenbakiduna) ez zen badaezpadakoa izan eta plazari buelta eman zion sari bezala. Bolinchero (140 zk.) izan zen hirugarrena, baina ezin izan genuen ikusi, besteak beste, **Ruben Blanco** toreatzaileak eta bere kuadrillakoak ere ez zutelako ikusi. Orokorrean beraz, nota altuko zezenketa.

**Ruben Blanco**k, Salamancakoak, isiltasuna jaso zuen bere lehengoan eta txistuak bere bigarrenean. Oso inpresio kaskarra utzi zigun eta ez zuen Puerto de San Lorenzoko zezenkoen ezaugarriak dituzten idiskoak toreatzeak sortzen duen beldur logikoa gainditu. Berari suertatutako ergien azpitik egon zen, gainera ezpatarekin asko tardatu zuenez, bi zezenkoetan abisua eman zioten lehendakaritzatik. Bere kuadrilla, desastre bat.

**Marco Leal**ek, Arleskoak oso arratsalde ona izan zuen, oso ongi banderilleatu zuen eta jarrera irmoa izan zuen, toreatzailea izan nahi duen bati dagokion bezalakoa, eta pase ikusgarriak egin zituen. Belarri bat eman zitzaion bere lehenengoan bigarren saikeran ezpata kolpe aldrebes samar batekin hil zuelako, lehenengo saiakeran ziztatu ondoren. Lehen esan dugun bezala, bere bigarren zezenkoa, Musika Bandari eskainitakoa (Fernando Urainen eskutik), hasierako muleta paseetan lesionatu egin zen eta zailtasunez kanporatu zuen plazatik zezenkoaren egoera ez zelako batere ona.

Zaletuak oso jarrera ona izan zuten. Seriotasunez baina dibertitzeko gogoa erakutsiz jokatu zuen publikoak eta batez ere toreatzaile gazteei laguntasuna eta animoak emanez. Hori da Debako zezen plaza indartzeko bidea. Zorionak!





*al balcón de autoridades el ganadero D. Lorenzo Fraile Martín que vino a Deba acompañado por su esposa y una hija.*

*Una gran decepción se produjo entre los excelentes aficionados que asistieron a la 2ª novillada de la feria taurina Sanroqueña. Y no era para menos. El cuarto novillo, Cubito que lucio en su costillar el nº 72, se lesionó en los cuartos traseros quedando invalidado para la lidia. Era un gran novillo. Como sus hermanos. Novillos excelentemente presentados. Preciosa estampa del burraco Yegüizo que, con el nº 118, abrió plaza. Fue el mejor novillo, bravo noble, con fijeza y humillando mucho. No le quedó a la zaga el nº 16 Caruchero que fue premiado con la vuelta al ruedo. Al nº 140, Bolinchero, que salió en tercer lugar no lo pudimos ver porque no lo vieron ni el novillero,* ***Rubén Blanco****, ni sus compañeros de cuadrilla. En definitiva una novillada de alta nota en su conjunto.*

***Rubén Blanco****, de Salamanca, fue silenciado en su primero y pitado en el 2º de su lote. Dejó una pobrísima impresión y no superó el miedo lógico de enfrentarse a novillos de las hechuras y características de los del Puerto de San Lorenzo. Muy por debajo de sus erales, además se eternizó con la espada recibiendo sendos avisos presidenciales en ambos novillos. Su cuadrilla, un desastre.*

***Marco Leal****, de Arles, dejó una grata impresión no solo porque banderilleó excelentemente, sino porque estuvo decidido, como corresponde a un novillero que quiere ser torero, consiguiendo también algunos excelentes pases. Se le concedió una oreja en su primero porque mató al segundo intento con una estocada algo contraria tras tras pinchar en su primer intento. Como ya se ha dicho, su segundo novillo, que había brindado a la banda de música en la persona de su director Fernando Urain, se lesionó al inicio de la faena de muleta debiendo limitarse a despacharlo con alguna dificultad, lógica por otra parte si tenemos en cuenta las condiciones en que se encontraba el novillo.*

*Mención aparte merecía el comportamiento del público. Seriedad no exenta de ganas de diversión, conocimiento y, sobre todo, una actitud de apoyo a los jóvenes novilleros que es de justicia resaltar. Ese es el camino para consolidar la feria taurina debarra. Enhorabuena.*

## *NOVILLADA DEL 20-08-2005*
## *LA LLUVIA PROTAGONISTA DEL DÍA*

*Al igual que "el día del niño", la jornada del día 20, último día de fiestas y última novillada de la feria, arrancó pasada por agua. Y eso hizo que el encierro que protagonizaron los astados del Puerto de San Lorenzo fuera muy emocionante y muy peligroso debido al complicado estado del suelo. En estas circunstancias resultó herido el debarra Fernando Pastor "Manin" que fue arrollado espectacularmente por el novillo nº 29, de nombre Mariposín, mientras realizaba su trabajo de arreador como en tantas ocasiones.*

*En la novillada de la tarde no cayó una gota de agua, a pesar de que había llovido incesante y abundantemente en las horas previas, lo que hizo que el público se retrayera a la hora de asistir al festejo. A pesar de todo hubo media entrada que, dados los pronósticos del tiempo, se puede considerar como una buena*

## 2005-08-20KO ZEZENKETA
## EURIA EGUNEKO PROTAGONISTA

Umeen Eguna bezala, hilaren 20a ere euritsua izan zen goiz goizetik. Horregatik, Puerto de San Lorenzoko zezenen entzierroa oso zirraragarria izan zen, baina baita arriskutsua ere lurraren egoeragatik. Fernando Pastor "Manin" debarra 29 zenbakidun zezenkoak (Mariposin) harrapatu eta zauritu egin zuen, beste hainbestetan bezala, akuilatzaile lanetan zebilela.

Arratsaldeko zezenketan ez zuen euririk egin, nahiz eta etengabe jardun aurreko orduetan. Hori zela eta jende gutxiago joan zen plazara, baina hala ere sarreren erdiak saldu ziren eta eguraldia kontuan hartuz, ez da batere sarrera txarra.

Puerto de San Lorenzoko zezenkoek aurpezpen oso ona izan zuten. Lehenengoa Perruno izenekoa (112 zk.) oso zezenko ederra zen baina ahul samar ibili zenez, toreatzaileak ezin izan zuen behar bezala luzitu. 106 zenbakiduna, Cartuchero, ibilbideko luzeko zezenko ona izan zen baina eskuekin nahiko bigun ibili zen. Mariposero (68 zk.) nahiko mantsoa izan zen nahiz eta toreatzen "erraz laga". 29 zenbakiduna, Mariposin, plazaratu zen azkena izan zen, itxura ederrekoa, suharra eta noblea. Orokorrean zezenketa honek ere besteak bezala, maila ona izan zuen.

Toreatzaileak **Juan Antonio Siro**, Salamancakoa eta **"El Santo"** izan ziren. Azken hori Miguel Gimenez de Valencia ordezkatzera etorri zen eskubiko eskumuturra apurtuta zuelako. Biek egin zuten gauza bera: beraien lehenengoan tertzioari agurra eta bigarrenean belarri bat.

Victor Urain izan zen lehendakaria, eta beste zezenketetan bazala Paco Salegi izan zen tekniko aholkularia eta Isidro Aristi albaitaria.

**Juan Antonio Sirok** ondo toreatu zituen bere bi zezenkoak. Poliki eta teknika handiz toreatu zuen bai kapotearekin eta bai muletarekin. Zaletuak gustura utzi zituen. Ezkerreko eskuarekin bikain aritu zen. Ezpatarekin asmatu ez zuenez (5 aldiz saiatu zen hiltzen) bere lehen zezenkoarekin ez zuen belarri bat lortu. Bigarrenari ezpata kolpe bakarra eman zion (nahiko kaskarra) eta merezitako belarri bat lortu zuen. Etorkizuna duen toreatzailea da.

**"El Santo"** ez zegoen 2005eko karteletan, baina ordezkapenak egin zituenez bi arratsaldetan toreatu zuen. San Roke Egunean arrakasta izan zuenez, ikusmina zegoen bere bigarren aukerarako. Azkarregi eta presaz toreatu zuen. Gaizki banderilleatu zuen, lehenengo zezenkoaren banderilla pare batean izan ezik. Lehenengoan ezpatarekin gaizki, bigarrena ezpata kolpe bakarrarekin hil zuen, aurrez ziztada bat emanda. Eskuin aldera pase eder batzuk egin arren, ez zen zezenkoek merezi zuten alturan egon.

Jendea bikain portatu zen. Estellako Gaiteroek eta Musika Bandak ekitaldia borobildu egin zuten eta Juan Antonio Sirok bigarren zezenkoa bandari eskaini zion.

*entrada.*

*Los toros del Puerto de San Lorenzo estuvieron muy bien presentados. El primero Perruno con el nº 112, era un gran novillo pero blandeó en exceso dificultando el lucimiento de su oponente. El nº 106, Cartuchero, fue un buen novillo de largo recorrido por ambos pitones aunque también tuvo el defecto de ser algo blando de manos. Mariposero, con el nº 68, fue mansarrón aunque era un novillo que "se dejaba" mucho. Y el nº 29, Mariposín que cerró la novillada y la feria fue un novillo de notable presencia, bravo y noble. En general la novillada, como las dos anteriores tuvo un muy buen nivel.*

*Los novillos fueron lidiados por* ***Juan Antonio Siro****, de Salamanca, saludos desde el tercio y una oreja y por* ***"El Santo"*** *que sustituyó al novillero anunciado Miguel Giménez de Valencia que fue baja por una rotura de la muñeca de la mano derecha. Al igual que su compañero de cartel, "El Santo" saludo desde el tercio en el primero y cortó una oreja a su segundo eral.*

*Presidió Víctor Urain, siendo el asesor técnico Paco Salegi y el asesor veterinario Isidro Aristi como en el resto de los festejos.*

***Juan Antonio Siro*** *mostró buenas maneras en sus dos novillos. Toreó despacio y con mucha técnica tanto de capote como con la muleta dejando un buen sabor de boca entre los aficionados. Estuvo muy notable con la mano izquierda. El desacierto con la espada, entró a matar en cinco ocasiones, le privó de cortar las orejas a su primer novillo. A su segundo le despachó de un pinchazo y estocada algo contraria cortando una oreja muy meritoria. Es un novillero con futuro.*

***"El Santo"*** *que no estaba incluido en los carteles de la feria de 2005, actuó dos tardes en Deba por la vía de las sustituciones. Había triunfado el día de San Roque, y por ello había cierta expectación para esta su segunda oportunidad. Estuvo muy acelerado y precipitado. Banderilleó mal, excepción hecha de un par a su primer novillo. Mal con la espada en el primero, mató al segundo de una estocada, tras un pinchazo previo. Tuvo detalles aislados en algunas series por la derecha, pero no estuvo a la altura de sus novillos.*

*El público otra vez excelente. Brillante actuación de los gaiteros de Estella y de la Banda de Música a quien Juan Antonio Siro brindó su segundo novillo.*

